



LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2015-05-19

BILERA ZENBAKIA: 20


ORDUA ETA LEKUA: Udaletxean 19,00tan

PARTEHARTZAILEAK: 5 emakume eta gizonezko 1

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. Denboraren bankua :Herritarren artean sare bat sortzea da sistema berri honen helburu, elkar laguntzan oinarrituz. Herritar guztiok eskeini dezakeguna edota jaso nahi duguna gure artean kudeatuz, diruaren orde denbora eskeiniz, denok aberastuz eta elkarren arteko harremanak sendotuz, belaunaldi desberdinak nahastuz....Honen inguruan Ordizin egin zen esperientzia ezagutu eta zailtasunak aztertu ondoren, herriko elkarteekin biltzea erabaki da eta hauen bidez ideia herritarren artean zabaldu. Ideia zabaltzeko « herri bizitzako » taldearen bilera batean parte hartzea ere interesgarria ikusten da, zenbat eta jende gehiagoren inplikazioa lortzeaz. Taldean uste dugu hasera ez dela erraza izango, baina dinamika martxan jartzen den neurriraino aurrera ateratu daitekeen ideia bat dela. Proba modura, iraila bitartean zirriborro bat prestatuko dugu, kontzeptuak eta helburuak ondo argituz, gero elkarte eta herritarrei zabalduko diegu ideia eta hortik aurrera, urte bukaera arte, ekimena martxan jartzen saiatuko gara.
2. Tipi-Tapa : Ekimen honen inguruan triptikoa ia prest dago, ibilbide eta ordutegiarekin batera. Asteartero egingo dira, arratsaldeko 17,00etan eta ekainean 2an hasteko asmoa dago. Triptikoa, herriko buzoietan zabalduko da eta aldi berean herriko medikuaren inplikazioa lortu nahi da, ekimenaren onurak azalduko dituen hitzaldi baten bidez.
3. Desfibrilagailua : Legorretako esperientzia azaldu du gizarte langileak eta aztertzeke gelditu da gaia. Legorretan gailua erostean gain, erabiltzeko formakuntza saio batzuk ere egin dira. Hemen ere horrelako zerbait egitea proposatzen da.
4. Dokumentalen balorazioa ; Lau saio egin dira ziklo honetan eta orain arteko balorazioa ona da, baina azken saioetara jende gutxiago inguratu dela aipatzekoa da. Urte bukaerari begira beste ziklo bat egiteko asmoa dago.
5. Baketik : gaia lantzeko gelditu da, batetik denbora eman ez duelako eta



bestetik, gaiari momentuz ez diogulako lehentasunik eman.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Denboraren bankuaren kudeaketaren zirriborroa prestatu	Ekainak 19	Haizea
Desfibriladorearen kontuaren inguruan informazioa jaso	Ekainak 19	Jabi

HURRENGO BILERA

Hurrengo bilera, Ekainaren 16an egingo dugu, asteartea arratsaldeko 7tan Udaletxean.

Gai ordena:

- Denboraren bankuko zirriborroa.
- Tipi Tapa programaren jarraipena
- Desfibriladorearen inguruko informazioa; ikastaroak, kokapena...